



TRANSNACIONALEN FUSIOAK ETA ELIKADURA

NORK ERABAKIKO DU
ZER JANGO DUGUN?

Elikagaien sorrera, gutxi batzuen esku geratzeko arriskuan

2016ko irailean, batez ere aspirinengatik ezagun den Bayer alemaniarrak beste gauza askorengatik ezaguna den Monsanto estatubatuarra erosi zuen, 66.000 milioi dolarren truke. Azken hiru urteetan ematen ari diren hazi industrialen eta nekazaritzako produktu kimikoen alorreko fusioetan ezagunena eta aipatuena izan da, baina ez bakarra: sektoreko beste konpainia erraldoi batzuk are erraldoiago bihurtzeko prozesuan daude murgilduta bete-betean. Operazioak ez dira guztiz burutu, agintarien baimen zain daude eta.

Teknologiaren bilakabidea eta multinazional handien jarduna hurbiletik jarraitzen duen ETC nazioarteko elkarteak fusio oldea ate joka zela ohartarazi zuen 2015ean, Monsanto bera Syngenta erosten saiatzen ari zenean (alferrik, dena esatera). Baina ETCren aurreikuspenak harago doaz: haziak eta pestizidak kontrolatzen dituzten enpresak megaenpresa bihurtu bezain laster, jokoan sartuko dira nekazaritzarako makineria saltzen duten konpainiak, besteak baino are handiagoak. Azken emaitza, epe ertainean, laborantza industrialaren alderdi guztiak goitik behera kontrolatuko duten aktore gutxi eta oso boteretsu batzuk besterik ez geratzea izan daiteke, nekazari txikien eta, azken batean, elikadura burujabetzaren kalterako.

Ondoko orrialdeetan gaur egun gertatzen ari diren fusio prozesuen eta ETCk etorkizunerako egindako aurreikuspenen berri emango dizugu, batez ere elkarte horrek argitaratutako materialetan oinarrituta.

■ **Egilea: Unai Brea**

Azala: Antza Komunikazio Grafikoa · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIaren 2.559. zenbakiarekin banatua, 2017ko ekainaren 25ean)



Bayerrek Monsanto erosi izana ez da agrokimikoen eta hazien sektorean egosten ari den fusio bakarra. Agintariek martxan dauden operazio guztiak baimenduz gero, gaur egun merkatu globala kontrolatzen duten zazpi konpainien ordez lau izango ditugu, boteretsuagoak eta gobernuen politiketan eragiteko gaitasun handiagokoak. BAYER

Saiatu honakoa irudikatzen: konpainia bakar batek hazia saltzen du, izurriteen prebalentzia ezagutu eta komeni den plagizida ematen du, tokian tokiko lurzoruetako baldintzen berri dauka eta horren arabera ongarria banatzen du – konpainia horrek berak egindako traktore “adimentsu” batek botako duena, metro koadro bakoitzean behar den kantitatean–, eta horretaz guztiaz gain klimaren ezaugarriak aurreikusi eta uzta babesteko aseguruia eskain dezake.

ETC taldeak 2015eko maiatzean argitaratutako testu batean planteatzen da deskribatu berri dugun balizko egoera. Hipotesia besterik ez da momentuz, baina badu oinarririk: orduetik igaro diren bi urteetan hainbat gertakarik pittin bat hurbildu gaituzte alegiazko errealitate horretara, oraindik lehenbiziko urratsetan baizik ez bagaude ere.

Nekazaritza industrialaren sektoreko konpainia erraldoiek martxan jarri dituzte elkarren arteko



XATAKA.COM

Saiatu honakoa irudikatzen: enpresa berak saltzen ditu hazia, izurriteen kontrako plagizida, ongarrria eta hori guztia behar den proportzioan botako duen traktore "adimentsua", uztza babesteko aseguruaz gain

fusio saioak, eta gorpila gelditu ezean baliteke etorkizuna aurreko paragrafokoa edo antzeko bat izatea –horrek zer ondorio izan lezakeen aztertuko dugu LARRUN honetan–, monopolioari buruzko araudiaren aurkakoa izan arren... ustez. Izan ere, monopolioa saihesteko ardura

duten erakundeen esku dago oraintxe enpresen elkarketei argi berdea ematea ala ukatzea.

TRANSNAZIONALEN ARTEKO HIRU "EZKONTZA"

Nekazaritza industrialaren merkatu globala lau atal nagusitan banatuta dago: haziak, pestizidak, makineria eta ongarrri sintetikoak. Lehenengo hiruretan kontzentrazioa nabarmena da: enpresa gutxi batzuek merkatuaren zati oso handia kontrolatzen dute (ikus erdiko orrialdeak). Begira diezaiozun lehenbizi hazi eta pestiziden arloari.

Fusioen dantzak kopurua are txikiago bihurtzen ez duen bitartean, oraingoz sei konpainia erraldoi (Monsanto, Bayer, BASF, Dow, DuPont eta Syngenta) dira nagusi hazien eta pestiziden merkatuan. Sei Handiak esaten zaie. Ez da kasualitatea enpresa horietako gehienak bi eremuotan jardutea: azken hamarkadetan ehunka hazi-konpainia txiki bereganatu dute –BASFek izan ezik–, eta eurek ekoiztutako plagizidekiko aldaera erresistenteak sortzeari ekin diote, bioteknologia bidez. Monsantoen hazi transgenikoen kasua da ezagunena, baina ez bakarria.

2014an, Monsantoek eroste-eskaintza egin zion Syngenta suitzarrari, baina hark ezetz erantzun zuen. Beste bitan ahaleginu zen AEBetako konpainia, eta bietan ezetz esan Syngentak. Haatik, fusioen lasterketa abiarazita zegoen. Azkenean Bayer izan da 2016ko irailean Monsanto erosi duena, baina besteak ez dira begira egon; Dow eta DuPontek bat egitea erabaki dute, eta Syngentak, Monsantoari ezetz esan eta gero, gustuko eroslea aurkitu du: ChemChina enpresa txinatar estatala, pestiziden arloan munduko zazpigarren konpainiaren jabea dena.

Sei Handietatik, BASF da oraingoz elkartzeen jokotik kanpo geratu den bakarria, eta ikusteko dago zer bide hartuko duen aipatutako hiru operazioak guztiz burutzen badira. Edozein kasutan, BASFen guztizko irabazien portzentaje txikia dator nekazaritzarekin lotutako produktuetatik. Berdin gertatzen da Bayer eta Dowrekin.

ETC taldeko Silvia Ribeirok ekainaren 10ean *La jornada* egunkari mexikarrean argitaratutako artikulua batean azaldu zuenez, “fusioak arretaz aztertzen ari dira (ustez) herrialde askotako monopolioaren aurkako erakundeak”. ETCren ustez, erakunde horiek konpainia handiekiko epelegi jokatu izan dute azken hamarkadetan, baina lerro hauek idazteko unean badirudi enpresen asmoei oztupoak jar diezazkiekeela Hegoalde Globaleko gobernuren batek, edo batek baino gehiagok. Horrek eragin lezake

inbertsiogileek fusioak errefusatzeko Bruselak edota Washingtonek baimendu arren, eta enpresek atzera egitea. Nolanahi, argi dago konpainien apustua kontzentrazioa areagotzea dela. Orain lortuko ez balute, saia litezke geroago. Zer ondorioarekin?

NEKAZARI TXIKIAK PRESIONATZEKO GAITASUN HANDIAGOA

Monsanto-Bayer, Dow-DuPont eta Syngenta-ChemChina fusioak burutuz gero, sortuko diren hiru enpresek munduko hazi komertzialen merkatuaren %60 kontrolatuko dute –hazi transgenikoen ia %100 barne–, eta pestiziden %70, Silvia Ribeirok aipatutako artikuluan dioenez. Bi merkatu horien baturak 97.000 milioi dolarreko balioa du (86.000 milioi euro).

ETCko kidearen hitzetan, fusioek inpaktu bortitza eragingo dute nekazaritzaz bizi diren familien ekonomietan, nahiz eta horien gehiengoak beren haziak eta oso intsumo kimiko artifizial gutxi erabili; “izan ere, megaenpresek gobernuei presio egiteko gaitasun handiagoa izango dute beren tamaina handitu ahala, tokian tokiko enpresa txikiak merkatutik irtetera behartzeaz gain”.

Aurreikuspen horren arabera, konpainiek presionatu egingo dute jabetza intelektualari buruzko arau murriztaileagoak lortzeko; nekazarien arteko hazi trukaketak debekatu edo mugatzeko –

Monsanto-Bayer, Dow-DuPont eta Syngenta-ChemChina fusioak burutuz gero, sortuko diren hiru enpresek munduko hazi komertzialen merkatuaren %60 kontrolatuko dute –hazi transgenikoen ia %100 barne–, eta pestiziden %70. Bi merkatu horien baturak 97.000 milioi dolarreko balioa du



ETC taldearen ustez, konpainien fusioek inpaktu bortitza eragingo dute nekazaritzaz bizi diren familien ekonomietan. HOEL

arau sanitarioen aitzakiarekin erregistratutako haziak erabiltzera behartuz, adibidez–; nekazaritzarako kredituak beren intsumo eta hazi patentatuak erabiltzearen baldintzapekoak izateko; edota nekazaritza-azpiegituretan egiten den gas-tua eredu industrialaren aldekoa izateko. “Soloe-tan –eta ondorioz elikagaietan– agrotokiko gehiago izango da, hazi transgenikoak saltzen jarraitu ahal izateko, nahiz eta dozenaka landare inbaditzailearen erresistentziak eragin”, gaineratzen du Ribeirok.

NEGOZIO-LERROA “ASTINDU” BEHARRA

Boterea handitzeaz gain, fusio orgia honi hasiera eman zion Monsanto arrazoi onak zituen Syn-

genta bereganatu nahi izateko. Batetik, egoitza AEBetatik Europara eramanda dirutza aurrez zezakeen zergetan. Bestetik, diru-sarrerak dibertsifikatu beharrean zegoen. Luzaroan, konpainiari irabaziak ziurtatu dizkiona Roundup herbizida eta hari lotutako Roundup Ready produktuak izan dira. Roundup-a, edo bestela esanda glifosatoa, historian gehien saldu den substantzia agrokimikoa da, eta osagai nagusia da 700 produktu ingurutan (2000tik edonork erabil dezake, orduantxe agortu baitzen Monsantoen patentea).

Konpainiak Roundup Ready izeneko soja edota arto hazi transgenikoekin batera saldu izan du pestizida. Glifosatoaren eragina jasateko genetikoki eraldatutako landareak dira, Roundup-ak



Luzaroan, Roundup herbizida (hau da, glifosatoa) izan da Monsanto irabaziak bermatu dizkion produktua, hura jasateko beren-beregi diseinatutako landare transgenikoekin batera. Baina glifosatoaren aroa amaitzen hasita dagoela jabetu da AEBetako multinazionala; kimika saila berriztu beharrean dago, eta hortik datorkio beste batzuekin elkartu nahia. MIKE MOZART-CC BY

“belar txarrik” gabe utzitako zelai garbietan oparo hazteko diseinatuak.

Baina bi arazo sortu zaizkio Monsanto. Alde batetik, hamarkada joan hamarkada etorri glifosatoarekiko erresistentzia duten landare-aldaerak garatuz joan dira: gutxienez 25 espezie gai dira

dagoeneko Monsanto asmatutako herbizida jasateko, eta haren produktuez hornitu diren nekazariak arazo larria dute orain. AEBetan bakarrik, belar super-erresistentez beteta daude lau milioi hektarea (2015eko datuak). Euskal Herriaren azalera halako bi.

HAZI ETA AGROKIMIKOEN ALORREKO

Bayer - Monsanto



Bayer: Munduko bigarren konpainia produktu agrokimikoetan, zazpigarrena hazietan.

Monsanto: Munduko lehen konpainia hazien alorrean, bosgarrena produktu agrokimikoetan.

2016ko irailean bi enpresek akordioa erdietsi zuten Baye-
rrek 66.000 milioi dolarren truke erosteko Monsanto. Lehiakortasunari eta monopolioei buruzko erakundeak akordioa aztertzen ari dira. Konpainiek espe-
ro dute 2017 amaierarako operazioa guztiz itxita egongo dela.



DuPont - Dow



DuPont: Munduko biga-
rren konpainia hazien alo-
rrean, seigarrena produktu
agrokimikoetan.

Dow: Munduko bosgarren

konpainia hazien alorrean, laugarrena produktu agrokimikoetan.



Bi multinazionalek 2015eko abenduan iragarri zuten bat egiteko nahia. Fusioak 68.000 milioi dola-
rreko balioa duen konpainia eratuko luke. Operazioa erabat burutzeko lehiakortasunari buruzko era-
kundeen oniritziaren zain daude.

ChemChina - Syngenta



ChemChina: Munduko zaz-
pigarren agrokimika kon-
painiaren jabea da:
ADAMA.



Syngenta: Munduko lehen
konpainia produktu agrokimikoetan, hirugarrena hazien alorrean.

2014 eta 2015ean Syngentak ezetz esan zien Monsanto egindako hiru eroste-eskaintzei. Haatik,
ChemChinaren eskaintza onartu zuen 2016ko otsailean, 43.000 milioi dolarren truke. Fusioak –orain-
dik onarpen zain herrialde askotan, nahiz AEBek jadanik baimendu duten– aukera eman diezaioke
ChemChinari hazi transgenikoen esparruan lehiatzen hasteko.

KONPAINIEN ARTEKO FUSIOEN EGOERA

BASF



BASF: munduko hirugarren konpainia da produktu agrokimikoen alorrean, baina apenas duen pisurik hazienean.

Momentuz fusioen jokoan kanpo geratu den bakarra da. Baliteke fusio horien ondorioz oso ahulduta geratuko diren konpainia txikiren bat bereganatzea etorkizunean.

MERKATU KONTZENTRAZIOA NEKAZARITZAKO INTSUMOETAN

a) Lehen zatia:

Nekazaritza industrialeko intsumoen merkatu globala

Merkatuaren guztizko tamaina ia 400.000 milioi dolarrekoa da (2013ko datuak), lau sektoretan banatua.

Ongarriak: 175.000 milioi dolar

Makineria: 116.000 milioi dolar

Pestizidak: 54.000 milioi dolar

Haziak: 39.000 milioi dolar

b) Bigarren zatia:

Pestiziden merkatua: sei konpainiak kontrolatzen dute merkatuaren hiru laurden

Syngenta: %20

Bayer: %18

BASF: %13

Dow: %10

Monsanto: %8

DuPont: %6

Gainerakoak: %25

c) Hirugarren zatia:

Haziak: merkatuaren %71 zazpi enpresaren esku dago

Monsanto: %26

DuPont: %21

Syngenta: %8

Limagrain: %5

Dow: %4

KWS: %4

Bayer: %3

Gainerakoak: %29

d) Laugarren zatia:

Laborantza-makineria: merkatuaren erdia baino gehiago lau konpainia handiren esku dago

John Deere: %25

CNH: %15

AGCO: %9

Kubota: %5

Gainerakoak: %46



“Soloetan –eta ondorioz elikagaietan– agrotoxiko gehiago izango da enpresa-fusioen ondorioz”, ETC taldeko Ribeireren esanetan. JUPITER IMAGES

Beste kolpea Osasunaren Munduko Erakundetik (OME) etorri zitzaion multinazional estatubatuarri. 2015eko martxoan, OMEren menpeko Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak substantzia “segur aski minbizi eragileen” multzoan sailkatu zuen glifosatoa. Gerora, ordea, Europako Elikagaien Segurtasunerako Agentziak kontrako bidetik jo zuen, glifosatoa gizakientzat kaltegarria dela esateko frogarik ez dagoela

adieraziz, hain zuzen ere Europako Batzordea substantziaren merkaturatze-baimena luzatzeaz ezbabaida betean ari zela. Gaia pil-pilean dago uneon; oraingoz, Batzordeak glifosatoaren baimena hamar urtez luzatzeko proposatu die Bata-suneko estatu kideei, baina ez da inolako erabaki finkorik hartu. Edonola ere, eta gertatzen dena gertatzen dela, Monsanto argi du glifosatoaren garaia amaitzen hasia dela, eta gainera duela urte

gutxi agortu zitzaion Roundup Ready transgeniko-koen patentea, eta harekin batera monopolioa. Bere kimika saila berriztu beharrean dago transnaziional ezaguna.

ANIZTASUNAREN ETA BERRIKUNTZAREN KALTE

Berrikuntza da, hain justu, sektoreko konpainia erraldoien buruek fusioen alde aipatzen duten argudioetako bat. 2015eko uztailean, artean Syngenta erosi nahian zebilela, Monsanto-ko presidentek esan zuen bi enpresen arteko baturak aukera gehiago eskainiko ziela laborariei. ETC taldeak, berriz, kontrako iritzia agertu zuen fusio saiakeren karietara argitaratutako *Breaking bad* txostenean: “Ikerketa askoren arabera, merkatua kontzentratzeak aukera murrizketa dakar”.

Adibide modura Europan egindako eta zientzialdizkarietan argitaratutako bi ikerlan aipatu zituen ETCK, 2013koa bata eta 2015koa bestea. Horien arabera, zenbat eta handiagoak enpresak, orduan eta labore barietate gutxiago eskaintzen dute. Txosten bereko beste pasarte batek hau dio: “Ekonomialariek ohartarazten dute lau enpresak merkatu baten %40 edo gehiago kontrolatzen badute arrisku handia dagoela lehiakortasunari uko egiteko, berrikuntzaren kalterako”.

Bai pestiziden sektorean bai hazienean kontzentrazioak aise gainditzen du %40ko muga hori. Pestizidei dagokionez, hiru konpainia nagusiek (Syngenta, Bayer eta BASF) merkatuko balorearen %51 dute; hazien kasuan, %55era iristen da hiru indartsuenen batura (Monsanto, DuPont eta Syngenta).

Aldaera kopurua eta berrikuntza murrizteaz batera hazien eta intsumoen prezioak igotzea da fusio handien beste ondorio kaltegarri bat, ETCren esanetan. Bi datu: Europar Batasunean, gorakada hori %30ekoa izan zen 2000 eta 2008 artean, Europako Legebiltzarreko Berdeen tal-

deak argitaratutako txosten baten arabera; eta AEBetan, 1990-2010 bitartean nekazaritzako intsumoen salneurria –batik bat haziena– azkarrago igo zen laborariek beren produktuengatik jaso zuten ordaina baino.

MAKINERIA-ENPRESAK, PARTIDUAN SARTZEKO ZAIN

Esan dugunez, hazi eta pestiziden merkatu globalak 97.000 milioi dolarreko balioa du, eta horren kontrola dago Sei Handiak eta ChemChina jokatzeko ari diren partiduaren muinean. “Baina fusio erronda ez da hemen amaituko, hasi besterik ez da egin”, dio Silvia Ribeirok; “epe ertainean, nekazaritzako intsumo guztiaren 400.000 milioi dolarren kontrola dago jokoan”.

Dirutza horren beste hiru laurdenak makineriaren eta ongari sintetikoaren esparruetan mugitzen dira. Makineriari dagokionez, merkatuaren gutzizko balioa 114.000 milioi dolarrekoa zen 2014an. Haziekin eta agrokimikoekin gertatzen den bezala, kontzentrazio handia dago eta enpresa gutxi batzuek menperatzen dute merkatua. Zehazki, lau handienek (John Deere, CNH, AGCO, Kubota) %54 kontrolatzen dute jada. Denetan buru, nabarmen, John Deere ageri da, merkatu osoaren ia laurdenaren jabe.

Makineria diogunean, ez gara traktore hutsez ari honezkero. Automatizazio handia lortu da, GPSa eta sentsoreak gehituz, hala nola ureztatzeko eta fumigatzeko droneak, gidaririk gabeko traktoreak, eta lurzoruari eta klimari buruzko

Silvia Ribeiro (ETC taldea):
“Megaenpresek gobernuei presio egiteko gaitasun handiagoa izango dute beren tamaina handitu ahala, tokian tokiko enpresa txikiak merkatutik irtetera behartzeaz gain”



“Operazio-gunean, hau da, traktorean datuak erabiltzea izango da nekazariaren lanaren muina, azken buruan”, irakur daiteke ETCren Breaking bad txostenean; “operazio-gune horrek kalkuluak egingo ditu lurzorua-aren egoeraz, klimaz eta merkatuz, haietatik abiatuta erabili beharreko haziari, pestizidari eta ongarriari buruzko gomendio bat inprimatzeko, edo pantailan agertzeko”. JOHN DEERE CO.

satelite bidezko datu ugari. Era berean, Monsanto eta enparauek laboreen genomari buruzko datu-base erraldoiak dituzte, besteak beste. ETCren hizkera erabiltzearen, bioteknologia enpresek softwarea dute, eta makineriakoe-ko hardwarea.

ETORKIZUNeko SALGAIA: DATUAK

Esan beharrik ez dago gauzak ez direla hain sinpleak. Batzuen eta besteen teknologiek bat egi-

ten dute, merkatuek elkar ukitzen dute, aliantzak sortzen dira. Klimari buruzko datuak biltzen hamabost urte baino gehiago daramatzen John Deere, esaterako, 2013an hasi zen bioteknologia-ko Sei Handiekin loturak sortzen, eta gaur egun

ETC: “Ikerketa askoren arabera, merkatua kontzentratzeak murriztu egiten du nekazari-ek eskura duten aldaera kopurua, eta berrikuntza moteltzen du”

lankidetzak akordioak ditu haietako bakoitzarekin. Monsanto, berriz, AEBetako zelaietako 30 milioi hektarearen 1:10 eskalako mapak eta datu historikoak dituela aldarrikatu du, eta etekin ekonomikoa ateratzen saiatzen hasi da, agidanez arrakasta handirik gabe momentuz.

2012an Monsanto exekutibo batek iradoki zuen konpainia laster informazioaren teknologiararen alorrean jarduteagatik izango zela ezagun. Urte hartan bertan, Precision Planting enpresa erosi zuen. Zehaztasunezko nekazaritzarako sistemak egiten ditu Precision Plantingek: zer erein, noiz ureztatu, zer ongarri bota...

2015ean John Deerek erabaki zuen Precision Planting Monsanto erostea, baina operazioa bertan behera utzi zuen AEBetako Justizia Departamentuak 2016ko udan. Fusioa gauzatu izan balitz, “Deerek zehaztasunezko laborantza-sistemen merkatua menderatu eta prezioak handitu eta berrikuntza moteldu ahal izango zituen, sistema horien menpe dauden estatubatuar nekazarien bizkar”, Justizia Departamentuaren ustez. Izan ere, John Deerek eta Precision Plantingek, elkartuta, zehaztasunezko laboreen merkatuaren %85 bereganatuko zuketena.

Konpainiek esan zuten agintarien erabakiaren aurka borrokatu eta fusioa gauzatzen ahaleginduko zirela, eta une batez uste izan zen Bayerrek Monsanto bereganatzeak horretarako bidea ireki zezakeela, baina ondoren atzera egin zuten. Oraingoz bederen. “Salmenta operazioa bertan behera utzi arren, saiakerak erakusten du joera zein den”, Silvia Ribeiroren berbetan.

NEKAZARITZA, DATUEN ERABILERA HUTSA?

“Azken batean, helburuen artean informazioaren kontrola ere badago”, adierazi zuen ETCko zuzendari Pat Mooneyk 2016ko irailean, Bayerrek Monsanto erosi zuela jakindakoan. “Enpre-

sa batek lortzen badu hazien jabe izatea, lurzoruari eta klimari buruzko informazioa gordetzea eta informazio genetiko berria prozesatzea, mundu osoko nekazaritza-intsumoekiko kontrola irabaziko du ezinbestean”.

Horregatik, Mooneyk zuzendutako taldeak ziurtzat jotzen du hazien eta pestiziden alorreko fusio saiakerak arrakasta ukanez gero bigarren olatua etorriko dela: makineria konpainiak bioteknologiakoak bereganatzen saiatuko dira. Lortuko ote dute? Ezin jakin, baina apustu egin behar izatekotan baiezkoaren alde egiten du ETCk, hainbat arrazoiengatik. Batetik, nekazariak bere eremuan erabiliko duen traktorea, edo bestela esanda gainerako datu guztiak jasoko dituen hardwarea, euren delako. “Operazio-gunean, hau da, traktorean datuak erabiltzea izango da nekazariaren lanaren muina, azken buruan”, irakur daiteke *Breaking bad* txostenean; “operazio-gune horrek kalkuluak egingo ditu lurzoruairengo egoeraz, klimaz eta merkatuaz, haie-tatik abiatuta erabili beharreko haziari, pestizidari eta ongarriari buruzko gomendio bat inprimatzeko, edo pantailan agertzeko”.

Utopia edo distopia? ETCren iritziz bigarrena, argiro. “Bigarren fusio erronda horren helburua automatizazio handiko eta oso langile gutxiko laborantza eredu bat inposatzea izango da”, dio Silvia Ribeirok. “Errefusatu ezingo duten pakete bat eskainiko zaie nekazariari: haziak, ongarriak, pestizidak, makinak, datu genomiko eta klimatikoak. Halaber, zer aseguru erosi behar duten esango diete, eta saiatuko dira kredituak jasotzea pakete hori erostearen menpekoa izan dadin, dagoeneko haziakin eta agrokimikoen egiten duten bezala”.

“Fusio erronda hasi besterik ez da egin. Epe ertainean, nekazaritzako intsumo guztien 400.000 milioi dolarren kontrola dago jokoan”

OSPE KONTUA, EDO MONSANTO IZATEAREN DESABANTAILA

ETCren ustez makineria-enpresek alde duten beste arrazoi bat “Monsanto ez izatearen zori ona” da. John Deere eta enparauek salmenta handiagoak dituzte hazien eta pestiziden alorreko konpainiek baino, baina horrez gain badute beste abantaila bat: ez dabilta genetikan eta kimikaren alorrean. “Prezisioneko tresneria saltzen dute, eraldaketa genetikorik jasan ez duena, eta beraz alde horretatik toxikoa ez dena”, azaltzen du ETCk. Makineria saltzaileek mesfidantza eragin lezakete nekazariengan, baina ez kontsumitzaileengan. Aldiz, Monsantoen izena maltzurkeriaren sinonimo bihurtu da mundu zaballean. Are gehiago, ez da baztertzekoa ospearean mesedetan izen hori laster agertoki publikotik desagertzea, Bayerrekin bat egitea probestuz.

Abantaila prosaikoago bat ere badute makineria sektorekoek: beren merkatuaren hazkundera. Aurreikuspenak betetzen badira, drone, robot, sentsoare, kamera eta bestelako laborantza-tresneriaren eskariak gorakada izugarria izango du datozen urteotan: 2014ko 2.300 milioi dolarretatik 18.450 milioira 2022rako, eta kontua ez omen da hor geldituko. Zehaztasunezko nekazaritzaren aukera handienak Ipar Amerikan eta Europan daude –non hazien eta produktu agrokimikoen negozioa gero eta motelago dabilen–, baina Hegoalde Globaleko latifundio handietan ere badu erosle potentzial ugari.

ONGARRIEN SEKTorea, BAZTERRETIK BEHA

Nekazaritzako intsumoen 400.000 milioi dolarreko opil eskerga horren zatirik handiena ongarrien esparrua da: 183.000 milioi dolarreko salmentak urtero. Baina beste sektoreek ez duten ezaugarria du: kontzentrazioa ez da inondik inora hain handia, ez dago enpresa erraldoi-erraldoirik. Hiru konpainia handien artean

“Errefusatu ezingo duten pakete bat eskainiko zaie nekazariari: haziak, ongarriak, pestizidak, makinak, datu genomiko eta klimatikoak. Halaber, konpainiak saiatuko dira kredituak jasotzea pakete hori erostearen menpekora izan dadin, dagoeneko haziekin eta agrokimikoen egiten duten bezala”

merkatuaren %21 baizik ez dute betetzen. Euretako bi (Potash Corporation eta Agrium) elkarrekin fusionatzeko prozesuan dira orain, baina aurrera eginez gero suertatuko litzatekeen enpresa Bayer-Monsantoren salmenten erdira baizik ez litzateke helduko.

Hori dela-eta, sektoreko enpresak nekez sartuko dira munduan jokatzen ari den fusioen partida handian, momentuz behintzat. Gainera, gutxi dakite genetikaz eta datu-base handien erabilerraz. Ongarriak zein modutan sartuko diren kontzentrazioaren gurpilean inkognita da oraindik, baita orain arte egindako aurreikuspenetan bete-betean asmatzen ari den ETC taldearentzat ere. Esan gabe doa 183.000 milioi dolar diru asko direla; zaila da irudikatzea prozesu honen amaieran ongarrien esparrua inplikaturik egongo ez denik, moduren batean edo bestean.



ETC TALDEAK KONPAINIA ERRALDOIEN ARTEKO FUSIO SAIOAK AZTERTU DITU BREAKING BAD TXOSTENEAN.



AEBetako 2011ko lehorteeek gauzak ondo pentsatzera behartu zituzten labore-aseguratzaileak. Estaldura handiegiak ordaindu behar izango dituzte kaos klimatikoak eragindako kalteen ondorioz? TONY GUTIERREZ / AP

Paketearen azken ukitua: aseguruak

Ez da harritzekoa agrindustriako korporazio handiek interesa edukitzea uzten aseguruaren sektorean, nekazariak euren produktuak erosten dituztela bermatzeko modu bat izan baitaiteke. Jardunbide hori zabaldua dago honezkero AEBetan, uzten aseguruaren munduko merkaturik handienean (Txina da bigarrena). Esate baterako, 2015-16 ziklorako John Deere enpresaren aseguru-sailak BASFekin bat egin zuen Risk Advantage izeneko poliza eskaintzeko. Poliza horrek prima merkeagoak eta estaldura hobek eskaintzen zituen laborariak BASFek ekoiztutako hiru produktu erosten bazituen gutxienez (hiruretako bat fungizida bat izan behar zen nahitaez), eta ez edozein kopurutan, baizik eta 200 hektarea estaltzeko adina. Ez da adibide bakarra.

Intsumoek gehien dakien enpresak, uzten emaitzen berri zehatzena duenak, merkaturaren egoera ondoen ezagutzen dituenak lortu dezake etekinik

handiena aseguruaren alorrean (primetan soilik urtero 30.000 milioi dolar eratzen duena, 2005eko kopuruaren lau halako). Logikoa dirudi agronegozietako enpresek zerbitzu oso baten truke kontratua sinatzera behartzea uzta aseguru (edo kredituak eskatu) nahi duten nekazariak. Haatik, klima aldaketa mugak jartzen ari zaizkie konpainia handien asmoei, joko-zelaiaren bi aldeetan jokatzeko duten heinean. Hau da, mozkin gehiago lortuko dute beren bezeroak behartuz produktu jakinei lotutako aseguruak kontratatze- ra, edo estaldura handiegiak ordaindu behar izango dituzte kaos klimatikoak eragindako kalteen ondorioz? AEBetan, 2011ko lehortee eta 2012ko uholdeek gauzak ondo pentsatzera behartu zituzten labore-aseguratzaileak, eta konpainia handi batzuk hasiak dira jada arlo horretan dituzten adarrak saltzen. Datu klimatikoak esku artean dituzten enpresak gai izango dira sektoreari errentagarritasuna bueltatzeko, edo klima kaotikoezia da dagoeneko?

(ETCren *Breaking Bad* txostenetik itzulia eta moldatua)



ARGIA

MOZALIK GABE

**INDARTU DEZAGUN
INDARTZEN GAITUENA**

argia.eus/eginargiakoa